



GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZETARAKO UDAL DIRU LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA: BASAURIKO UDALA, 2025

I. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1. Aplikatu beharreko araudia

- 1.1 Deialdi hori 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurak onartu zuen, eta 2024ko abuztuaren 6an argitaratu zuen Bizkaiko Aldizkari Ofizialak.

Dirulaguntza hauek emateko prozedura eta emailearen eta erakunde jasotzailearen arteko harreman juridikoa argitaratuko dira deialdi honen Basauriko Udalaren dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren eta indarrean dagoen gaionentzeko araudiaren arabera.

- 1.2 Zehazkiago, administrazio-prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/215 Legea aplikatuko da.
- 1.3 Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gainerako kontuetarako, berriz, honako hauetara joko da: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; hura garatzeko Araudia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretua.
- 1.4 Aplikagarria izango da, era berean, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duena, eta gainerako araudi osagarriak diru-laguntzen gainean xedatutakoa.

2. Eremua

- 2.1 Oinarri arautzaile hauek arautzen dute GGKE-ei dirulaguntzak ematea, honako xede hauetarako: a) garapenerako lankidetzaproiektuak herrialde txiroetan; 2) Basauri udalerrian gizarte-eraldaketarako sentsibilizazio- eta heziketa-ekintzak.
- 2.2 Honako ekintza hauek, berriz, ez dira jaso oinarri hauetan —beste udal diru laguntza espezifiko batzuk jasotzen dituztelako, edota Udalarekin hitzarmen individualizatu zuzenak dituztelako—: a) Laguntza humanitarioa edota larrialdietarako laguntza; b) beste herrialde batzuetatik etorri, eta zaurgarritasun-egoeran dauden adin txikikoak behin-behinean hartzea Basaurin; c) Udalerriko etorkinen elkarteek aurkeztutako ekimenak; d) Ipar-hego ikuspuntu argia ez duten emakumeen ahalduentze-ekintzak, eta herriko emakume-taldeentzako, kultura- eta gazte-taldeentzako eta abarrentzako laguntza.

3. Eskatzaileak

- 3.1 Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak, adibidez: GGKEak, erlijio-elkarteak, fundazioak eta horien pareko erakundeak, baldin eta haien estatutuetan, helburuetan, eginkizunetan edo txostenetan berariaz jasota badago garapenerako lankidetzak.
- 3.2 Egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra izan behar dute Bizkaiko Lurralde Historikoan; ahal dela, Basauriko udal mugartean (azken horrek lehentasuna izango du, proposamenak balioestera). «Ordezkaritza iraunkorra» dagoela joko da, baldin eta erakundeak agiri bitartez frogatu ahal badu egitura esanguratsuak dituela Bizkaian, eta egitura horiek beren gain hartzen badute dena delako ekintza aurkezteko eta haren lankidetzazko kudeaketaren gaineko erantzukizun zuzena.
- 3.3 Gutxienez, dagokion deialdiaren argitaratze-dataren aurreko bi urteetan, eratuta eta EAEko dagokion erregistroan inskribatuta egon behar dute eskatzaileak; ahal dela, eta lehentasunez, izena emanda egon behar dute Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan (Kareaga Goikoa 52. Tel.: 944 666 300).



- 3.4 Aurreko puntuan aipatutako erakundearen partzuergoek ere eskabideak aurkeztu ahalko dituzte, bertan adierazitako baldintza guztiak betetzen baditu haietako bakoitzak. Partzuergo horiek aurkeztutako proposamenak sustatuko ditu Udalak, bereziki: baremazioan positiboki balioetsiko ditu, eta haien proiektuetarako baimendutako gehieneko aurrekontu-mugak handitu ahalko ditu.
- 3.5 Partzuergoko erakundeek beren gain hartuko dute proiektuaren erantzukizuna, modu bateratuan; eta helbide bakarra emango dute, espedientearen administrazio-jakinazpenetarako. Hitzarmen batean zehaztuko dira erakunde bakoitzak proiektuan duen partaidetzaren ehunekoa eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak; eta eskaera egitean aurkeztuko da hitzarmen hori. Bertan, berariaz jasota geratu beharko da erakunde bakoitzak zuzeneko erantzukizuna duela bere partaidetzarekiko, eta erantzukizun subsidiarioa proiektuaren osotasunarekiko.

4. Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- 4.1 Eskaera-orkia, sinatuta. Bertan, pertsona edo erakunde eskatzaileak aitortu beharko du ez duela onuradun izateko debekuetako bat ere (Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen ditu debeku horiek).
- 4.2 Hegoaldean garapenerako lankidetzarako eta/edo Basaurin gizarte-erlaketak lantzeko sensibilizazio- eta heziketa-proposamenei buruzko eskabide espezifikoak. Oinarri arautzaileen eranskinetan daude (informazio tekniko eta finantzarioa daukate, eta eranskinak).
- 4.3 Erakundearen IFZren fotokopia.
- 4.4 Eskaera sinatzen duen pertsonak erakundearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria, eta ordezkari horren NANaren edo baliokidea den dokumentuaren fotokopia.
- 4.5 Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeek, aipatutako agiriarekin batera, dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta erakundearen estatutuen fotokopia aurkeztu beharko dituzte.
- 4.6 Udalari ez bazaio baimenik ematen zergak ordaintzeko betebeharrari buruzko datuak jasotzeko, zergak ordainduta daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, hain zuzen ere, zerga-administrazio eskudunak urte horretan bertan emandakoa.
- 4.7 Ondorengoa aurkeztu beharko da: Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izateari buruzko ziurtagiria, edota erakundeak bere ardurapean langilerik ez izateari buruzkoa, hain zuzen ere, Diruzaintza Orokorra urte horretan bertan egindakoa.
- 4.8 Basauriko Udalak finantzatutako aurreko lankidetzak-ekintzei buruzko aitorpena, sinatuta. Jakinarazi beharko da ekintza horiek zein fasetan dauden (aribidean; amaituta eta zuzitzea zain; edo Udalak jada zuziketa onartuta).
- 4.9 Udalaren diru laguntzaren bat edo Udalarengandik bestelako ordainketarik inoiz jaso ez duten erakundeak ez dira Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egongo; hori dela eta, emango zaien «Hirugarrenen Fitxa» aurkeztu beharko dute.
- 4.10 Gizarte-politika Arloak (Lankidetzak Atala) erakunde eskatzaileari beharrezko deritzon dokumentazio eta informazio osagarria eskatu ahal izango dio, aurkeztutako eskaera egokiro ebaluatu eta horri buruz ebazteko.

5. Eskabideak aurkeztea eta epeak



- 5.1 Eskabideak aurkezteko epea: HILABETEKOA ,deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- 5.2 Eskabideak, aurreko atalean aipatutako nahitaezko gainerako dokumentazioarekin batera, modu telematikoan izapidetuko dira, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez (egoitza.basauri.eus).
- 5.3 Dokumentazio osoa euskarri informatikoan aurkeztuko da, eta 4.2 puntuan aipatutako eskabide espezifikoak ere aurkeztu beharko dira.
- 5.4 Eskakerak ez badaude erabat beteta edo agindutako dokumentazioaz lagunduta, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo aginduko dokumentuak aurkezteko; eta, hala egiten ez badu, adieraziko zaio joko dela eskaeran atzera egin duela, horren gaineko erabaki espresua eman ostean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71.1. eta 42.1. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

6. Prozedura, ebaztea eta ordaintzea

- 6.1 Eskabideak Berdintasun eta Lankidetzaren Arloak (Lankidetzaren) izapidetuko ditu. Enplegua, sustapen ekonomikoa, merkataritza, berdintasuna eta bizikidetzaren aniztasunean, eta immigrazioaren informazio batzordeari dagokio dirulaguntzak emateko proposamena onestea eta berau Alkatetzari helaraztea. Proposamena onetsi ala ezetsiko da norgehiagokaraudiak xedatutakoari jarraituta eta Oinarri hauetan zein beren eranskinetan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera. Dirulaguntzak alkatetzaren dekretu bidez, espresuki eta banaka eman ala ukatuko dira. Eta udal webgunean zein BAOn argitaratuko dira erabakiok.
- 6.2 Diru laguntza emateko ebazpenean jasoko da zein baldintzatan ematen den, zein epetan egikaritu behar den, ekintzak zein modu eta epetan zuritu behar diren, aurkeztu beharreko dokumentazioa zein den, eta abar. Halaber, onuradunek Oinarri hauen arabera dituzten betebeharrak adieraziko dira. Era berean, kasu bakoitzerako berariazko baldintzak ezarri ahalko dira, baldin eta, jardueren izaera zehatzarengatik edo beste baldintza batzuegatik, egoki jotzen bada, diru-laguntzen xedea eta helburuak betetzeko.
- 6.3 Eskatera baztertu egingo da, baldin eta erakunde eskatzaileak ez badu egiaztatu Basauriko Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela, dagozkion erakundearen egiaztapenak aurkeztuta.
- 6.4 Eskatutako laguntza eman edo ukatzeko erabakiek administrazio bidea agortzen dute. Horien kontra, berraztertze errekurtsoa jar dezakete interesdunek, erabakia eman duen organoan; bestela, Administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo dezakete, zuzenean.
- 6.5 Arau orokorra da eskatutako zenbatekoaren % 100 ematea proposamen bakoitzerako (ondorengo atalean finkatutako aurrekontu-mugaren barruan badaude). Salbuespenez, eskatutakoa baino txikiagoa izan ahalko da diru laguntza. Kasua hori denean, eskatzaileak proiektua/ekintza birplanteatu beharko du: bere aurrekontua zenbateko horretara egokituko beharko du, edota, bestela, diru laguntzari uko egin beharko dio.
- 6.6 Edozelan ere, onuradun guztiek esanbidez eta idatziz onartu beharko dute emandako diru laguntza eta haren baldintzak. Era berean, proiektuaren/ekintzaren hasiera-data egiaztatu beharko dute, diru laguntza emateari buruzko jakinarazpena jasotzen den dataren osteko hamar eguneko epean.



- 6.7 Eskerak ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia BAOn argitaratzen denetik. Diru laguntza eskerak ukatu egin direla joko da, baldin eta data horretan ebazpen espresurik ez bada egon (hala ere, Administrazioak eskaera espresuki ebatzi beharko du).
- 6.8 Orokorrean, diru laguntzan ematen den unean zenbatekoaren %100 pagatuko da, aurretiaz egindako ordainketa bakarrean, transferentzia eginda erakundearen titulartasuneko kontu korrante batera (zeina, propio, diruz lagundutako proiektu/ekintzarako bakarrik izan beharko baita).

7. Beste diru laguntza batzuekin bateragarria izatea

- 7.1 Basauriko Udalak garapenerako lankidetzarako ematen dituen diru laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazioek edo erakunde publiko edota pribatuak emandakoekin. Halaxe izango da, baldin eta diruz lagundutako proiektuak berezko nortasuna badu: ez da diruz lagunduko beste proiektu bateko ekintza txiki bat. Era berean, zehaztu beharko da nortzuk diren gainerako finantzatzaileak, eta finantzaketa horiek onartu izanari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko da. Edozelan ere, diru-laguntzen eta bestelako diru-iturrien bitartez lortutako finantzaketaren zenbateko osoak ezingo du gainditu proiektuaren/ekintzaren kostu osoa.
- 7.2 Ez dira diruz lagunduko dirulaguntza emateko datan lerro bereko beste proiektu/ekintza bat duten GKE-ek aurkeztutako ekimenak (hau da, Basauri udalerrian lankidetzara edo gizarte-eraldaketarako sentsibilizazioa eta heziketa lantzekoak), baldin eta proiektu/ekintza horiek aurreko deialdietan diruz lagundu badira eta gauzatze bidean edota amaituta baina justifikatzeko zain badaude.
- 7.3 GKEk berak aukera izango du herrialde txiroetuan garapenerako lankidetzara-proiektuak egiteko eta Basaurin garapenerako heziketa-ekintzak gauzatzeko eta sentsibilizazioa lantzeko diru laguntza deialdira aurkezteko.
- 7.4 Oinarri hauetan araututako diru laguntzak espezifikoak direnez, oro har ez dira bateragarriak izango Basauriko Udaleko beste diru laguntza lerroetakoekin.

8. Diru laguntzak zuritzea

- 8.1 Gehienez ere, 3 hilabeteko epea egongo da emandako diru laguntzak zuritzeko, diruz lagundutako proiektua/ekintza amaitzen den datatik.
- 8.2 Zuritutako jarduerak eta, bereziki, gastuak, proiektua/ekintza gauzatzeko aldi barrukoak izan beharko dira.
- 8.3 Aurreko horien ondorioetarako, 6.2 puntuan aurreikusitako ebazpenak proiektua/ekintza hasteko eta amaitzeko finkatutako datak hartuko dira kontuan. Erakunde onuradunak, bere aldetik, data horiek berretsita izango ditu, 6.6 puntuan aipatutako diru laguntza onartzean.
- 8.4 Diru laguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren % 100 egiaztatu beharko da, ez bakarrik Udalak emandako kopurua. Hala xedatzen du Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak.
- 8.5 Diruz lagundutako proiektuen/ekintzen zuriketa, bai agiri bidezkoa bai finantza-arlokoa, txosten-eredu espezifikoak eta horien eranskinei jarraituta egin beharko da. Oinarri hauei erantsita doaz.
- 8.6 Gastu zuzenak, hau da, proiektuaren/ekintzaren jarduerari dagozkienak, jatorrizko faktura digitalizatuen bidez justifikatu beharko dira, eta, horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non espezifika egingo den adierazitako faktura horiek jatorrizkoen digitalizazioa direla eta ez dutela inolako aldaketarik jaso. Hala ere,



udalak, hauek erkatu ahal izateko, jatorrizko dokumentuak eskatzeko eskubidea izango du. Formatuari dagokionez, berriz, herrialde txirotuetan egiteko nazioarteko lankidetzaproiektuen kasuan, horiek egiten direnean dagokion herrialdean indarrean dagoen legeriak xedatutakoak aginduko du. Edozelan ere, zuriketak ondasuna/zerbitzua ematen duenaren identifikazioa, eta ondasun/zerbitzuaren deskribapena jaso beharko ditu. Beste finantzazio kide batzuen ekarpenekin bakarrik finantzatutako gastuen kasuan, kopia konpultsatuak ere onartuko dira. Kostua finantzatzaile askoren artean hainbanatuz gero, zigilua jarri beharko dute, adieraziz Basauriko Udalari esleitutako ehunekoa. Baimendutako zuzeneko gastuen eta horien tipologiaren eta mugen xehetasunak jasota datoz Oinarriotako hurrengo ataletan.

- 8.7 Zeharkako gastuak, hau da, erakunde eskatzailearen edota tokiko haren bazkideen administrazio-gastu orokorre dagozkienak, nahikoa izango da erakunde eskatzaileak aitorpena egitea, adieraziz gastu horiek izan dituela eta horien zenbatekoa izen den. Baimendutako zeharkako gastuen eta horien tipologiaren eta mugen xehetasunak jasota datoz Oinarriotako hurrengo ataletan.
- 8.8 Zuritu beharko dira eskatzaileak proposatu eta Basauriko Udalak onetsitako helburuak, kokapena, xede-taldeak, bazkideak, jarduerak, kronograma eta aurrekontua. Proiektuaren gaineko edozein aldaketaren berri Basauriko Udalari jakinarazi beharko zaio, idatziz, aldaketa eragin duten inguruabarrak agertu eta berehala (eta, noski, proiektua burutzeko epea agortu baino lehen). Basauriko Udalak baimen espresua eman beharko du honako alor hauetan aldaketak egiteko: a) luzapenak, horien iraupena edozein dela ere; b) helburuak/lorpenak, kokapena, tokiko xede-bazkide edo -talde zuzenak aldatzea; eta c) aurrekontu-partiden % 20tik gorako aldaketak, hain zuzen ere, eragindako edozein gastu-lerrorenak (jatorria eta xedea).
- 8.9 Diru laguntzaren frogagiriak aurkezteko betebeharra betetzen ez bada, edo behar besteko zuriketa egiten ez bada, onuradunek jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dituzte, berandutze-interesak eta guzti, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 37.1 artikulua xedatu bezala.
- 8.10 Ez dira aintzat hartuko aurreko proiektu bat zuritzeke duten diru laguntza eskaerak.

9. Aurrekontu-banaketa

9.1 Aurrekontuan 140.000,00 €-ko zenbatekoa aurreikusi du Basauriko Udalak GKEE-arentzako diru-laguntzetarako, hain zuzen ere, txirotutako herrialdeetan garapenerako lankidetzaproiektuak aurrera eramateko. Eta 40.000,00 € bideratu ditu Udalak Basaurin garapenerako eta sensibilizaziorako heziketa-ekintzak aurrera eramateko.

II. KAPITULUA.- GKEE-EI DIRU LAGUNTZAK EMATEA, HEGOALDEAN LANKIDETZA-PROIEKTUAK AURRERA ERAMATEKO

DIRU LAGUNTZA LERROA	GARAPENERAKO LANKIDETZA
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK
Aurrekontu-partida	053.2317.48102
Partidaren deskribapena	Transf. arr. garapenerako lankidetzaproiektuak.
Zenbatekoa	140.000,00 €
Diru laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA



1. Xedea

- 1.1 Oinarri hauen ondoriotarako, zera izango da herrialde txiroetako garapenerako lankidetzaren proiektua: ekintza-multzo bat, herrialde jakin batean, denbora-tarte jakin batean, aurretiaz definitutako herritar multzo jakin batentzat, garapen-helburu jakin, zehatz eta neurgarria lortzeko diseinatutakoa. Proiektu horren eraginek, teorikoki, iraun egin beharko dute, proiektua amaitu eta gero ere.
- 1.2 Beraz, arau orokor gisa, ezingo dira diruz lagundu laguntza-ekintza puntual eta isolatuak, egiteaz batera agortzen direnak (dohaintzak, materiala edo ekipoak bidaltzea, ikastaro puntualentzako bekak, hegoaldeko pertsonekin trukeak edo hangoen bisitak, eta abar), ez bada aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen dituen ekimen handiago baten parte direla.
- 1.3 Proiektuak irabazi asmorik gabekoa izan behar du (ez dio onura ekonomiko zuzenik edo zeharkakorik ekarri behar erakunde eskatzaileari edota tokiko haren bazkideei), eta ez du proselitismoa egin behar (hau da, ez du interes partidistarik babestu behar). Proiektuaren helburu nagusiak izan behar dira pobrezia-aren aurka borrokatzea, giza- eta erakunde-gaitasunak sendotzea, eta herrialde txiroetetan zaurgarritasun-egoeran dauden herritarren eskubideak bermatzea/sustatzea. Gainera, garapen jasagarriarako helburuen (GJH) 2030eko Agendako helbururen batekin bat egin beharko dute.

2. Lehentasunak

- 2.1 Lehentasun geografikoa: herrialdeen lehentasun-hurrenkera finkatuko da honako hauek kontuan hartuta: a) Basaurik eta udalerrian lanean ari diren GKE-ek dituzten abantailak eta balio erantsia; eta b) zaurgarritasun-egoera larrienean dauden eskualdeak/herrialdeak, alegia, Giza Garapen Indize baxuena dutenak. Horrela, bada, 5 puntu emango zaizkie Afrikan garatzen diren proiektuei (diskriminazio positiboa).
- 2.2 Horrexegatik, hain zuzen ere, Basauriko udal lankidetzaren lehentasunak 2030eko Garapen iraunkorreko helburuetan ardaztuko dira, eta honako hauek izango dute lehentasuna: 3. Osasuna eta ongizatea; 4. Kalitatezko hezkuntza; 5. Genero-parekidetasuna; 8. Lan duina; 10. berdintasunik ezak gutxitzea; 13. Klimaren aldeko ekintzak; 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

3. Proiektu guztiek bete beharreko baldintzak

- 3.1 Arrazagatik, erlijioagatik, sexuagatik edota adinagatik diskriminaziorik ez egitea, proposatutako ekintzaren protagonista izango diren artean. Are gehiago: aurreikusitako helburuak lortzerakoan, genero-ekitate bermatu beharko dute; eta, epe luzeagora, emakumeek beren komunitatean duten rola eta egoera soziopolitiko hobetzen lagundu beharko dute.
- 3.2 Lan egingo den komunitateetako gizarte-sareak eta parte-hartzea indartzea. Eta oinarritzko erakunde- edo komunitateak sortzea, indartzea, sarean lan egitea eta haien konpromisoa sustatzea, bai eta horiek tokiko agintari eta erabaki-esparruekin lotzea ere.
- 3.3 Garapen-estrategia zabalagoetan argi eta garbi txertatzea (bai proiektua bultzatzen duten tokiko bazkideek, bai maila lokalean garatzeko politika eta lehentasunetan proposatutako ekintzen koherentziari dagokionez). Ohiko plan, programa edota estrategietan integratzea, epe ertain eta luzera (bai erakunde eskatzailearenetan, bai proiektuaren xede-taldeekin Basaurirako aurreikusitako sentsibilizazio-ekintzetan).



- 3.4 Tokiko bazkide baten edo batzuen bitartez egitea, edota kontrako alderdien bitartez. Tokiko bazkidea izango da nortasun juridikodun eta irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edota erakunde publiko bat. 6.2 puntuari aurreikusitako ebazpena onetsi aurretik, eta onespenez hori emateko baldintza gisa, erakunde eskatzaileak dokumentu bat entregatu beharko du, adieraziz zeintzuk diren bere gain hartutako konpromiso eta erantzukizunak, eta zeintzuk diren kontrako alderdiei dagozkionak. Alderdi biek sinatuta egon beharko da dokumentu hori. Tokiko bazkideek edota kontrako alderdiek diru laguntzaren zati bat edota diru laguntza osoa exekutatzeko ez da azpikontrataziorik joko, 38/2003 Legearen 29. artikulua ondo onartutako.
- 3.5 Ez dira onartuko jada amaitutako proiektuak. Edozelan ere, erakunde eskatzaileari diru laguntzaren zenbatekoa sartzen zaionetik 2 hilabeteko epean hasi beharko da proiektua martxan.
- 3.6 Gehienez ere, 24 hilabeteko epean amaitu beharko dira proiektuak.
- 3.7 Oro har, behar bezala arrazoiatutako salbuespenak salbu, eta, ahal denean, Basauriko Udalaren logoa jarri beharko da proiektuetan, ikusteko moduko toki batean. Era berean, Udalak aurrera eramandako gainerako jarduerari emandako laguntzaren zabalkundea ere egin beharko da.

4. Eskabideak eta ereduak

- 4.1 Oinarri hauen eranskinetan ageri diren eredu espezifikoetan aurkeztu beharko dira proiektuen narrazioari, ezaugarri teknikoari eta aurrekontuari lotutako kontuak. Hartara, (hala badagokio) aurreikusitako eredu horietan jasotako egitura, atalak, edukia, hedadura eta gainerakoak errespetatu beharko dira. Bai inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren egoitza elektronikoen bitartez aurkeztuko dira.
- 4.2 Udal webgunean egongo dira eskuragarri aipatutako ereduak, formatu elektronikoa, erakunde interesdunek bertatik deskargatu ahal izateko.

5. Balorazio-irizpideak

- 5.1 Proposamenak baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan: a) Proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez 30 puntu); b) Aktoreen gaitasuna eta harremanen kalitatea (gehienez 20 puntu); c) Genero ikuspegia (gehienez 20 puntu) d) Ingurumen jasangarritasuna (gehienez 20 puntu) f) Aurrekontua (gehienez 10 puntu) g) Lehentasun geografikoa (gehienez 5 puntu). Irizpide bakoitzean baloratu beharreko alderdi zehatzak eta zehatzagoak, bai eta baremazioan duten garrantzia ere, deialdi honi erantsitako taulan kontsulta daitezke.
- 5.2 Ez dira diruz lagunduko 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak: joko da ez dutela gutxienezko kalitate teknikoa. Hori halaxe izango da, aurkeztutako proposamenek aurreikusitako aurrekontua agortzen ez duten kasuan ere.
- 5.3 Proiektuak barematzeko, bakarrik hartuko da kontuan dirulaguntza eskatzeko formularioa eta nahitaezko eranskinetan jasotako informazioa. Ez dira kontuan hartuko paragrafo honetan adierazitakoez bestelako informazio-iturriak..

6. Diru laguntzaren zenbatekoak eta mugak

- 6.1 Eskatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal du herrialde txiroetan garapenerako lankidetzako proiektuen deialdian.



- 6.2 Gutxienez, 20.000 € eskatu beharko zaizkio Basauriko Udalari aurkeztutako proiektu bakoitzerako, eta, gehienez ere, 40.000,00 €. Eskatutako zenbatekoa ez badago muga horien barruan, proposamena aurkeztu dutenei eskatuko zaie berau berrikusteko, 5.4 puntuan aurreikusitako fasean. Proposamena zuzentzen ez badute, proiektua zuzenean baztertuko da, haren kalitate teknikoa balioetsi ere egin gabe.
- 6.3 Zenbait GKE osatutako partzuergoek aurkeztutako proposamenen kasuan, 60.000 € arteko diru laguntza eskatu ahal dute, proiektuko.
- 6.4 Basauriko Udalak proiektuaren zenbatekoaren %100 finantziatu ahal izango du.
- 6.5 Basauriko Udalaren diru laguntzaren konturako funtzionamendu-gastu zuzenak, gehienez ere, emandako diru laguntzaren zenbateko osoaren % 5 izan ahalko dira. Funtzionamendu-gastu zuzenak definituta datoz Oinarri hauen hurrengo atalean.
- 6.6 Basauriko Udalaren diru laguntzaren konturako zeharkako administrazio-gastuak, gehienez ere, emandako diru laguntzaren zenbateko osoaren % 8 izan ahalko dira. Zeharkako administrazio-gastu horiek izango dira Oinarri hauen hurrengo atalean definitutakoak.
- 7. Diruz lagun daitezkeen gastuak**
- 7.1 Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerari argi eta garbi lotutako gastu zuzen zein zeharkakoak, hain zuzen ere, erabat beharrezkoak direnak eta deialdi honen oinarri arautzaileetan jasotako epean egiten direnak.
- 7.2 Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira, beraz, honako hauen ondorioz sortutako kostu zuzenak: a) lursailak edota eraikinak erostea (horien jabetza-erregimena eta titulartasuna zehaztu beharko da, egiaztagiri egokia aurkeztuta); b) eraikuntzak edota azpiegiturak eraikitzea edo birgaitzea (horien jabetza-erregimena eta titulartasuna zehaztu beharko da, egiaztagiri egokia aurkeztuta); c) ekipoak, materialak eta hornikuntzak erostea eta garraiatzea; d) tokiko langileen kostua; e) atzerriaratuak langileen kasua (proiektuari lotutako profesionalen aseguruak eta ordainsariak barne; kanpo geratzen dira egoitzan proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko langileen gastuak. Horiek zeharkako kostuen partidara egotzi beharko dira); f) proiektuarekin lotura zuzena duten jardueretarako kanpoko zerbitzuak (bereziki, tokiko giza baliabideen prestakuntzaren kostuak); g) dietak, ostatua eta bidaia-gastuak; h) proiektuaren funtzionamendu-gastua, hau da, diruz lagundutako proiektu espezifikoari osorik eta zuzenean egozgarri zaizkion gastu arruntak, hura garatzeko tokian bertan egindakoak (adibidez: proiektuaren eremuan bulego berria eraikitzea, proiektua kudeatzeko bakarrik; edota proiekturako ibilgailua), Betiere, erakunde eskatzailearen edota haren bazkidearen ohiko beste funtzionamendu-gastu batzuk kanpo utzita; i) «funts birakaria», hau da, onuradunei egindako mailegu zuzenak edota gauzazko maileguak, haiek baldintza zehatz batzuetan bueltatu beharrekoa; j) Bizkaian/Basaurin egindako eta proiektuarekin zuzenean lotutako sentsibilizazio-jardueren kostuak.
- 7.3 Diruz lagundu ahalko dira, era berean, zeharkako kostuak, hau da, EGKEE eskatzailearen edota tokiko haren bazkidearen administrazio- eta kudeaketa-gastuak, hain zuzen ere, diru laguntzara aurkeztutako proiektu zehatzean espezifiko indibidualizatu ezin daitezkeenak (administrari komunak, komunikazioa, paper-gauzak, bulegoaren alokairua eta hornigaiak, eta abar). Edozelan ere, zeharkako kostuak zuzentzen joko dira proiektua gauzatu edota ekintza garatzen bada.
- 8. Zuritze-ereduak**
- 8.1 Oinarri hauen eranskinetan ageri diren justifikazio-eredu espezifikoetan aurkeztu beharko dira proiektuen narratioari, ezaugarri teknikoari eta aurrekontuari lotutako kontuak. Bai



inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira.

- 8.2 Udal webgunean egongo dira eskuragarri aipatutako ereduak, euskarri elektronikoan, erakunde interesdunek bertatik deskargatu ahal izateko.

III. KAPITULUA.- GKEE-ENTZAKO DIRULAGUNTZAK, BASAURIN GIZARTE-ERALDAKETARAKO SENTSIBILIZAZIO- ETA HEZIKETA-EKINTZAK AURRERA ERAMATEKO

DIRU LAGUNTZA LERROA	GARAPENERAKO LANKIDETZA
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	GIZARTE-ERALDAKETARAKO SENTSIBILIZAZIO- ETA HEZIKETA-PROGRAMAK
Aurrekontu-partida	053.2317.48164
Partidaren deskribapena	Transf. arr. gizarte-eraldaketaarako sentsibilizazio- eta heziketa-ekintzak
Zenbatekoa	40.000,00 €
Diru laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Xedea

- 1.1 Oinarri hauen xedeetarako, gizarte-eraldaketaarako sentsibilizazio- eta heziketa-ekintzak izango dira basauriarrei, orokorrean, edo berariazko talde batzuei, bereziki, zuzendutakoak, baldin eta ekintza horien xedea bada sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzea txirotutako herrialdeen egoeraren ezaugarriei buruz, egoera hori eragiten duten arrazoiei buruz eta hango komunitateek egoera gainditzeko egiten dituzten ahaleginei buruz. Helburua da konpromiso solidariozko jarrerak sustatzea basauriarren artean, Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak bidezkoagoak eta parekideagoak izan daitezkeen. Era berean, txirotutako herrialdeekiko eta bertakoekiko elkartasun eta kontzientziazio irizpidea sustatu nahi da, eta zenbait balore ere bai: ekitatea; tolerantzia; diskriminaziorik eza; eta jatorri zein sorterrri desberdinetako gizaki eta kulturen arteko elkartasuna. Hori guztia, gainera, Garapen Iraunkorreko Helburuen 2030eko Agendako helbururen batekin identifikatuta. Irizpide hauek kontutan hartuta, ez dira diruz lagunduko udalak dagoeneko egiten dituen jarduerak bikoizten dituzten proiektuak.
- 1.2 Honako ekintza hauek hartzen dira kontuan, zehazki: a) sentsibilizazioa: epe laburrerako ekintzak, unean unekoak, herritar kopuru zabalagoari heltzeko lehenengo urratsa direnak; b) heziketa eta prestakuntza: epe ertain eta luzerako estrategiak; helburu argia eta metodologia zehatza dute eta egoeren kausak sakon aztertzen dituzte; helburua izango da herritarrei horren garrantziaz ohartaraztea, haiek, gero, ekintzak sor ditzaten; c) ikerkuntza: gizarte-ikerkuntzarako tresnak baliatzen dituzten ekintzak, hain zuzen ere, beste ardatz batzuetan (esaterako, eragin politikoan) ekintzak garatzeko garrantzi berezia dutenak; d) eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa: gizarte-, ekonomia- eta politika-egiturei tokiko mailan zein modu globalean eragiten dieten erabakietan eragina izateko diseinatu eta egon beharko dira, eta herritarren parte-hartzea eta inplikazioa ahalbidetzen dute.
- 1.3 Aurreko ekintzak hiru mailatan garatu daitezke: a) eremu formala: hezkuntza-erakundeek garatutako heziketa-prozesuak: erakundeen aintzatespen ofiziala izan beharko dute, eta agintari eskudunek onartutako curriculumari jarraitu beharko diete; b) eremu ez-formala: praktika antolatutakoak, argi zehaztuak eta xede-talde espezifiko batzuentzat diseinatuak (ez dira ikastegi ofizialetan emango, eta, hezkuntza-ekintzak bukatutakoan, ez da titulu edo ziurtagiri ofizialik emango); c) Eremu informala: prestatu gabeko ekintzak: ikaskuntza-



prozesu jarraia eta bat-batekoa da, eta hezkuntza formaletik zein ez-formaletik kanpo dago (familiar, aisia-taldeetan, eta abarrean ematen da).

2. Lehenetasunak

- 2.1 Ekintzen tipologiari dagokionez, kontuan hartuta Basauriko GKEE-en balio erantsia eta abantailak, honako hauek lehenetsiko dira: a) sentsibilizazio-ekintzak; eta b) heziketa-prestakuntza ekintzak (aurreko atalean definitu bezalaxe). Positiboki balioetsiko dira, zehazkiago, komunikazio- eta informazio-teknologia berriak erabiltzea sustatzen duten ekintzak (xede-taldeei begira hori garrantzitsua bada, eta teknologia horiek talde horiei egokitzen bazaizkie) eta ele bietan egiten direnak (euskaraz eta gaztelaniaz).
- 2.2 Mailei dagokienez, berriz, lehenetsiko dira heziketa ez-formaleko eta informaleko eremuetakoak. Heziketa formalaren eremuko ekintzak bakar-bakarrik lehenetsiko dira baldin eta argi eta garbi eta berariaz egiaztatzen bada hezkuntza-erakundearen programazioaren osagarriak direla, eta, dagokion ikastetxeko irakasleez gain, Zuzendaritzak ere parte hartzeko konpromisoa hartu duela egiaztatzen duen agiria eransten bada.
- 2.3 Gaiei dagokienez, garapen jasagarriko helburuak (GJH) lehenetsiko dira, eta, horien artean, hauek: a) 12. GHJ, bidezko merkataritzara eta kontsumo arduratsura bideratua (turismo arduratsua barne); b) 10. GHJ, Ipar eta Hegoaren arteko egiturazko berdintasunik ezak gutxitzea bideratua; c) haurren eskubideak bermatu eta sustatzera bideratutako Garapen Irankorreko Helburuak(1., 3., 4., 8. eta/edo 10.); d) 5. Garapen Iraunkorreko Helburuetara, genero-parekidetasunera eta garapenera bideratua, eta e) Garapen Irankorreko Helburuak oro har.
- 2.4 Xede-taldeei dagokienez, eragin biderkatzailea duten taldeei zuzendutako ekintza espezifikoak lehenetsiko dira. Zehazkiago, honako hauek: a) hezitzaileak, astialdiko monitoreak, eta abar; b) guraso elkarteak; c) gazte-talde, -mugimendu eta -elkarteak; d) komunikabideetako profesionalak (kazetariak, ikasleak, kazetaritza-eskolak eta komunikabideetan ardurak dituztenak); e) GKE bateko espezializazio-eremuko edozein elkarte profesionaletako edo erakundetako kideak; f) talde sindikal edo profesionalak, hain zuzen ere, garapenerako heziketarekin lotura zuzena edota zeharkakoa dutenak; g) bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari lotutako elkarteak edota gizarte-mugimenduak (kontsumitzaileen elkarteak, baratze komunitarioak, tokiko ekoizleak, desazkunde-taldeak, eta abar).

3. Ekintzek bete beharreko baldintzak

- 3.1 Basauriko udal mugartean egin behar dira. Udalez gaindiko ekintza bada (foru, erkidego edo Estatu mailakoa), frogatu beharko da Basaurin eragin zuzen eta espezifikoa baduela.
- 3.2 Iparralde-hegoalde ikuspegia argi eta garbi txertatu behar du. Basaurin dauden eta garrantzitsuak diren arazoei buruzko ekintzak ezingo dira hautatu, baldin eta ekintza horiek ez badira, nola edo hala, hegoaldeko testuinguruekin lotzen.
- 3.3 Erakunde eskatzailearen ohiko plangintza, programa edota estrategietan txertatu behar dira, modu koherentean (adibidez: lotura izatea erakundeak txirotutako herrialdeetan aurrera eramandako lankidetzaren; garapenerako heziketaren alorreko programa zabalagoen parte izatea; Estatuko edota Europako ekimenekin bat egitea; eta abar).
- 3.4 GKE-tik kanpoko taldeek ekintzak aurrera eramaten laguntzea sustatu behar dute (berezik, erakunde eskatzaile(ar)en boluntarioek edota oinarri sozialak, Basaurin dauden etorkinen taldeek edota hegoaldeko haien bazkideek parte hartzea bultzatu behar dute).



- 3.5 Ekintzak islatutako mezu eta irudiek Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde Koordinadoraren 1998ko Jokabide Kodea bete behar dute.
- 3.6 Ekintzek ezin dute arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik edota iritziengatik diskriminatu. Genero-ekitate kontuak aurreikusi behar dituzte. Eta gizonek eta emakumeek aurreikusitako helburuetarako sarbidea izango dutela bermatzeko, eta, epe luzeagora, emakumeek Basaurin duten rola eta egoera soziopolitiko hobetzeko neurriak txertatu behar dituzte.
- 3.7 Sentiberatze-jarduerak, bai herritar guztiei zuzendutakoak, bai talde espezifikoentzako direnak, arrazakeriaren, xenofobiaren eta giza eskubideen defentsaren gaiak ere jorratu behar dituzte.
- 3.8 Hala dagokion guztietan, eta horretarako aukera dagoenean, euskaraz ere egin beharko da materiala, hitzaldiak, zabalkunde-jarduerak, eta abar. Zehazkiago, Euskararen Erabilerari buruzko Udal Araudia bete beharko da.
- 3.9 Ez dira onartuko jada amaitutako ekintzak. Edozelan ere, erakunde eskatzaileari diru laguntzaren zenbatekoa sartzen zaionetik 2 hilabeteko epean jarri beharko da ekintza martxan.
- 3.10 Gehienez ere, 12 hilabeteko epean burutu beharko dira ekintzak.
- 3.11 Basauriko Udalaren logotipoa agertu beharko da ekintzan, ikusten den toki batean. Era berean, posible baldin bada, Udalak aurrera eramandako jarduerak babesten dituela jakinarazi beharko da.

4. Eskabideak eta ereduak

- 9.1 Oinarri hauen eranskinetan ageri diren eredu espezifikoetan aurkeztu beharko dira ekintzen narrazioari, ezaugarri teknikoak eta aurrekontuari buruz aurreikus daitezkeen kontuak. Hartara, aurreikusitako eredu horietako egitura, atalak, edukia, hedadura eta gainerakoak errespetatu beharko dira. Bai inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira.
- 4.1 Udal webgunean egongo dira eskuragarri aipatutako ereduak, euskarri elektronikoan, erakunde interesdunek bertatik deskargatu ahal izateko.

5. Balorazio-irizpideak

- 5.1 Proposamenak honako hauen arabera balioetsiko dira: a) proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez 30 puntu); b) Eragileen gaitasuna (gehienez 10 puntu); c) Genero-ikuspegia (gehienez 20 puntu) d) Ingurumen-iraunkortasuna (gehienez 20 puntu) e) Ikuspegi orokorra (gehienez 10) Aurrekontua (gehienez 5 puntu) f) Lehentasun geografikoa (gehienez 5 puntu). Oinarrioi erantsitako taulan kontsultatu ahal dira irizpide bakoitzean balioetsi beharreko kontu zehatzago eta xeheagoak, eta horiek baremazioan duten pisua.
- 5.2 Ez dira diruz lagunduko 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak: joko da ez dutela gutxieneko kalitate teknikoa. Hori halaxe izango da, aurkeztutako proposamenek aurreikusitako aurrekontua agortzen ez duten kasuan ere.
- 5.3 Bakarrik hartuko da kontuan proiektuak barematzeko, dirulaguntza eskatzeko formularioan eta nahitaezko eranskinetan jasotako informazioa. Ez da kontuan hartuko paragrafo honetan adierazitakoez bestelako informazio-iturriak.

6. Diruz lagun daitezkeen zenbatekoak



- 6.1 Eskatzaile bakoitzak ekintza bakarra aurkeztu ahalko du Basaurin gizarte-eraldaketarako sentsibilizazio- eta heziketa-ekintzetarako deialdira.
- 6.2 Gutxienez, 5.000 € eskatu beharko zaizkio Basauriko Udalari aurkeztutako ekintza bakoitzerako, eta, gehienez ere, 10.000 €. Eskatutako zenbatekoa ez badago muga horien barruan, proposamena aurkeztu dutenei eskatuko zaie berau berrikusteko, 5.3 puntuan aurreikusitako fasean. Proposamena zuzentzen ez badute, ekintza zuzenean baztertuko da, haren kalitate teknikoa balioetsi ere egin gabe.
- 6.3 Zenbait GKE-k osatutako partzuergoek aurkeztutako proposamenen kasuan, 15.000 € arteko diru laguntza eskatu ahal dute, ekintzako.
- 6.4 Basauriko Udalak proiektuaren zenbatekoaren %100 finantziatu ahal izango du.
- 6.5 Basauriko Udalaren diru laguntzaren konturako administrazio- eta funtzionamendu-gastuak, gehienez ere, emandako diru laguntzaren zenbateko osoaren % 10 izan ahalko dira. Zeharkako administrazio-gastuak izango dira Oinarri hauen hurrengo atalean definitutakoak.

7. Diruz lagun daitezkeen gastuak

- 7.1 Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerari argi eta garbi lotutako gastu zuzen zein zeharkakoak, hain zuzen ere, erabat beharrezkoak direnak eta deialdi honen oinarri arautzaileetan jasotako epean egiten direnak.
- 7.2 Diruz laguntzeko gastuak izango dira honako hauen kostu zuzenak: a) ekipoak, materialak eta hornigaiak erostea eta garraiatzea; b) erakunde eskatzailearen langile-gastuak (proiektuari lotutako profesionalen aseguruak eta ordainsariak barne); kanpo geratuko dira egoitzan proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko langileen gastuak. Horiek zeharkako kostuen partidara egotzi beharko dira; c) proiektuarekin lotura zuzena duten jardueretarako kanpoko zerbitzuak (bereziki, prestakuntza, azterlanak, tailerrak, materialak diseinatzea, edukien zabalkundea komunikabideetan, Internetarako diseinuak, eta abar); d) dietak, ostatua eta bidaia-gastuak.
- 7.3 Diruz lagundu ahalko dira, era berean, zeharkako kostuak, hau da, EGKEE eskatzailearen administrazio- eta kudeaketa-gastuak, hain zuzen ere, espezifikoki indibidualizatu ezin daitezkeenak (administrari komunak, komunikazioa, paper-gauzak, bulegoaren alokairua eta hornigaiak, eta abar). Edozelan ere, zeharkako kostuak zuritutzat joko dira ekintza garatzen bada.

8. Zuritze-ereduak

- 8.1 Oinarri hauen eranskinetan ageri diren zuritze-eredu espezifikoetan aurkeztu beharko dira ekintzaren narrazioari, ezaugarri teknikoei eta aurrekontuari lotutako kontuak. Bai inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira.
- 8.2 Udal webgunean egongo dira eskuragarri aipatutako ereduak, euskarri elektronikoan, erakunde interesdunek bertatik deskargatu ahal izateko.



**1. ERANSKINA. TXIROTUTAKO HERRIALDEETAN EGITEKO DIREN GARAPENERAKO
LANKIDETZA-PROIEKTUAK: BAREMAZIO-TAULAK**

1. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA	Gehienez: 30
1.1 Proiektuaren testuinguruari, aurrekariei eta aurrera eramandako identifikazio-prozesuari buruzko behar besteko informazioa ematen da? Hortik ondorioztatu ahal da proiektuak lehentasuna eta garrantzia duela deialdi honetan?	Gehienez: 5
1.2 Koherentzia dago antzemandako arazoen, helburuen, ondorioen eta proposatutako jardueren artean?	Gehienez: 10
1.3 Adierazle egokiak eta horiek neurtu ahal izateko egiaztatze-iturriak zehazten dira?	Gehienez: 5
1.4 Proiektua iraunkorra dela jo daiteke?	Gehienez: 8
1.5 Proiektua bat dator oinarri hauetan lehenetsitako Garapen Iraunkorreko Helbururen batekin?	Gehienez: 2
2. ERAGILEEN GAITASUNA ETA HAIEN HARREMANEN KALITATEA	Gehienez: 35



2.1 Erakunde eskatzailea aktiboa da, Basauri udalerrian edozein motatako ekimenak sustatzen (sentsibilizazioa barne)?	Gehienez: 10
2.2 Proiektuaren alorrean lan-eskarmentua du eskatzaileak?	Gehienez: 5
2.3 Egokiak dira tokiko kontrako alderdiaren eskarmentua eta gaitasuna?	Gehienez: 5
2.4 Jasotzaileek behar beste parte hartzen dute proiektuaren zikloan? Beste erakunde esanguratsuek ere parte hartzen dute?	Gehienez: 5
2.5 Partzuergo gisa aurkeztu dute proiektua?	Gehienez: 10
3. GENERO-IKUSPEGIA	Gehienez: 15
3.1 Genero-ikuspegia modu transbertsalean txertatu da proiektuan?	Gehienez: 5
3.2 Emakumeei zuzendutako ekintza espezifikoak ditu proiektuak?	Gehienez: 10
4. AURREKONTUA	Gehienez: 20
4.1 Bat datoz aurrekontua eta planteatutako jarduerak?	Gehienez: 10
4.2 Proiektuaren finantza-bideragarritasun globala	Gehienez: 10
PROPOSAMENA, GUZTIRA:	Gehienez: 100



2. ERANSKINA. BASAURIKO GIZARTE-ERALDAKETARAKO SENTSIBILIZAZIO- ETA HEZIKETA-EKINTZEN BAREMAZIO-TAULAK

1. EKINTZAREN KALITATE TEKNIKOA	Gehienez: 30
1.1 Garrantzitsua da jorratutako gaia?	Gehienez: 8
1.2. Proiektua bat dator oinarri hauetan lehenetsitako Garapen Iraunkorreko Helburuekin?	Gehienez: 2
1.3 Hautatutako xede-taldeak ondo definituta daude? Irisgarriak eta estrategikoak dira?	Gehienez: 10
1.4 Egokiak dira proposatutako diseinua, metodologia eta lanabesak?	Gehienez: 5
1.5 Ekintzak epe labur eta luzerako aurreikusitako lorpenak errealistak eta bideragarriak dira? Ondo mugatuta daude?	Gehienez: 5
2. ERAGILEEN GAITASUNA ETA HAIEN HARREMANEN KALITATEA	Gehienez: 35
2.1 Erakunde eskatzailea aktiboa da, Basauri udalerrian garapenerako eta sentsibilizaziorako ekimenak sustatzen?	Gehienez: 10
2.2 Ekintzaren alorrean lan-eskarmentua du eskatzaileak?	Gehienez: 10
2.3 Jasotzaileek behar beste parte hartzen dute ekintzan? Beste erakunde esanguratsuek ere parte hartzen dute?	Gehienez: 10
2.4 Partzuergo gisa aurkeztu dute ekintza?	Gehienez: 5
3. GENERO-IKUSPEGIA	Gehienez: 15
3.1 Genero-ikuspegia modu transbertsalean txertatu da ekintzan?	Gehienez: 15
4. AURREKONTUA	Gehienez: 20
4.1 Bat datoz aurrekontua eta planteatutako jarduerak?	Gehienez: 10
4.2 Ekintzaren finantza-bideragarritasun globala	Gehienez: 10
PROPOSAMENA, GUZTIRA:	Gehienez: 100